

elkartean

Autonomia Erkidegoko Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Konfederazio Koordinatzailea
Confederación Coordinadora de Personas con Discapacidad Física de la C.A.P.V.

ELKARTEANen
proposamenak, EAEn
erantzukizun publikoko maila
eta esparru orotan egiten
diren politiketan eta
arau-garapenetan zabaltzeko
eta aplikatzeko
2013

Gutxitasunak dituzten
EAeko pertsonen
gizarteratzea,
parte-hartzea eta
bizitza independentea
bultzatzeko baldintza
egokiak eta nahikoak
lortzea xede

AURKIBIDEA

ELKARTEAN: AURKEZPENA	4
DOKUMENTU HONEN AURKEZPENA ETA ESPARRUA	9
ELKARTEANEN PROPOSAMENAK, LEGEGINTZALDI HONETAN EGINGO DIREN POLITIKETAN ETA ARAU- GARAPENETAN ZABALTZEKO ETA APLIKATZEKO	12
BALTZEKO ETA APLIKATZEKO	12
PROPOSAMEN ESPEZIFIKOAK, ARLOAREN ARABERA	14
ERANSKINA – ERREFERENTZIA-ITURRIAK	33

ELKARTEAN AURKEZPENA

ELKARTEAN (Euskal Autonomia Erkidegoko Gutxitasun Fisikoa eta/edo Organikoa duten Pertsonen Konfederazio Koordinatzailea) plataforma bat da, xedetzat duena aniztasun funtzionala duten herritarrak ordezkatzea, babestea eta haien aldeko aldarrikapen-ekintzak egitea. Hain zuzen, herritar horiek, gizarte-talde bat osatzen zutela jakitun, beren ekintzak eta ahotsa erakunde publikoen, pribatuen eta gizarte osoaren aurrean bideratzeko sortu zuten; izan ere, bat eginik, kohesio eta garrantzi handiagoa lortzen dute aldarrikapen horiek egiteko.

ELKARTEANeko **kide dira Eginez (Araba), ELKARTU (Gipuzkoa) eta FEKOOR (Bizkaia)**. Gaur egun, **ELKARTEANek, guztira, 29 elkarte biltzen ditu eta 12.000 bazkide baino gehiago ditu**.

ELKARTEANeko elkarte kide bakoitzak lurralde-eremu batean aritzen da lanean, eta ELKARTEAN da elkarte guztien EAEko ordezkari. Alde horretatik, ELKARTEANen helburua da aniztasun funtzionala duten herritarrak herritar oso izatea; hots, eskubide eta aukera berak izatea, edozein lurralde historikotan bizi direla ere.

ELKARTEANek ordezkatu eta babestu egiten ditu desgaitasun fisikoa eta/edo organikoa duten EAEko pertsonen eskubideak eta

interesak. Zehazki, baldintza batzuk bermatu nahi ditu, gizabanako orok aukera izan dezan hautatu duen bizi-modua izateko, komunitatean erabat gizarteratuta eta bertan erabat parte hartuz.

ELKARTEANen misioa: ¹

ELKARTEAN konfederazioa bat da, desgaitasun fisiko eta organikoa duten pertsonen EAEko irabazi-asmorik gabeko federazioak eta elkarteak biltzen dituena. Sektore horretako elkarte-mugimendua biltzen du, hau guztia egiteko:

Lurralde arteko gizarte-ekintza bateratuak egin, pertsona ororen, eta, bereziki, desgaitasunen bat edo/eta mendetasunen bat duten pertsonen eskubideak eta betebeharrak agerian jartzeko eta errespetatu ditzatela aldarrikatzeko euskal administrazio publikoari, gizarte-eragileei, desgaitasun fisikoa eta organikoa duten pertsonen eta haien senideei, eta, oro har, herritarrei.

Desgaitasun fisikoa eta organikoa duten EAEko pertsonen errealitatea herritar guztiei azaldu, agerian jarri eta horretaz kontzientziarazi.

Kolektibo horren eta elkarte kideen ordezkari izan, EAEko administrazio publikoaren lurralde arteko guneetan eta organoetan, kolektiboko

¹ Oharra: ELKARTEANen misioa, 2011-2014 Plan estrategikoan jasoa.

kide guztien eta konfederazioaren interesak abiapuntu hartuta.

Elkarte-mugimendua koordinatu, bai eta mugimendu horrek lurralde arteko garapen politikoko prozesuetan duen parte-hartzea koordinatu ere, interes komunak abiapuntu hartuta.

Horren guztiaren helburua da kolektibo horrek pairatzen dituen bazterkeria-egoerak aldatzea, bai eta aurrera egitea ere, gizartea inklusiboa izan dadin lortzeko prozesuan eta gizarte horretan pertsona guztiek —batez ere, egoera ahulean daudenek— aukera berberak izan ditzaten eta modu aktiboan parte har dezaten lortzeko prozesuan.

Gizartea aldatzeko prozesuan, lurralde arteko estamentu eta gizarte-eragile jakin batzuek hartzen dute parte. ELKARTEANek haiei begira egiten du lan. Gizartea aldatzea xede hartuta, hau guztia egiten du: lurralde arteko esparruan, aldaketa horren alde lan egiten duten indar guztiak koordinatzeko ekimenetan ekitera eta parte hartzera bultzatzen ditu inplikaturako kolektiboko kideak (desgaitasunen bat duten pertsonak); argitalpenak eta kanpainak egiten ditu, prestakuntza eta informazioa emateko; gizarte-, politika- eta lege-arloko testuinguruak aztertzen ditu, eta haien jarraipena egiten du; eta EAEko ordezkaritza-organoetan eta foroetan parte hartzen du; EAEko komunikabideetan agertzen da; eta harremanetan dago beste arlo batzuetako elkarte-mugimenduekin.

Horretaz gainera, modu efikaz eta efizientean kudeatzen ditu eskura dituen baliabideak. Antolamendua argia, demokratikoa eta kide anitze-

koa da; zehazki, elkarte kideetako erabakimen handieneko karguek eta teknikariek hartzen dute parte antolamendu horretan.

ELKARTEANen balioak:²

ELKARTEANen balioak eta printzipioak, haren jardunari eta kanpo-proiektzioari dagokionez:

- *Gizabanakoaren balioa berrestea / aske egitea, desgaitasunaren eta mendetasunaren gainetik.* Horrek esan nahi du pertsona horien parte-hartzea eta protagonismoa bultzatu behar direla. Haiekin eta haien ikuspuntua hartuta egin behar da lan, eta gizarteak kolektibo horri buruz duen ikuspegi “negatiboa” gainditu. Horren ildotik, ELKARTEANek xede hauek izan behar ditu: gizabanakoen eskubideak eta betebeharrak berreskuratzea eta berrestea, eta gizabanako horiek beren proiektuetan eta ekintzetan aktiboki parte hartzera bultzatzea.
- *Integrazioa/inklusioa/normalizazioa, bizitzaren arlo guztietan.* ELKARTEANek gizarte-berdintasuna sustatu behar du. Horrek izan behar du, hain zuzen ere, ELKARTEANen filosofiaren oinarri eta aldarrikapenen irizpide. Zeharkako printzipio gisa, antolatatu egin behar ditu barrura eta kanpora begira egiten diren ekimen guztiak.
- *Unibertsaltasuna eta globaltasuna, gizarte-zerbitzuak ezartzean / Irisgarritasun unibertsala.* ELKARTEANek arreta handia

² Iturria: ELKARTEANen 2011-2014 Plan estrategikoa.

jartzen du marjinazio- eta bazterkeria-zantzuak gainditzeko, bai eta zerbitzuen publikotasuna eta erantzukizun publikoa aldarrikatzeko ere. Hori dela eta, ELKARTEANek hainbat arlotan esku hartzen du (esate baterako, hirigintzan, zerbitzuetan eta partaidetza-arloan).

- *Ordezkeri izatea.* ELKARTEANek alor honetan hau du ardatz: administrazio publikoari eta, oro har, gizarteari begira bere elkarre kideen eta haietan bildutako kolektiboen ordezkeri gisa duen legitimitatea indartzea, maila tekniko handiko proposamen koherenteak eginez.

ELKARTEANen balioak eta printzipioak, konfederazioaren harremanei, antolamenduari eta barne-jarduerari dagokionez:

- *Erantzunkidetasuna.* Garrantzitsua da elkarre kideen artean lankidetzeta- eta koordinazio-dinamika egokiak izatea, bai eta eskura ditugun baliabide eta birtartekoen mende soilik ez egotea ere. Horrek bide eman digu urte askoz jardunbide egokia sortzeko.
- *Barne-koherentzia.* Eutsi egin behar zaio ELKARTEANen filosofiari; hau da, aldarrikapen-lana egiteari, lagungarria baita zailtasunei eta liskarrei aurre egiteko.
- *Konfiantza.* ELKARTEANen aritzen diren pertsona guztien lana babestu behar dugu, eta eginkizunak besteen esku uztea bultzatu behar da gobernu-organoetan eta lantalde eta lan-batzordeetan. Ezinbestekoa da, batetik, pertsona guztien ekarpenak balioestea, eta bestetik, onartzea pertsona guztiek ez dutela zertan eginkizun guztietan parte hartu.
- *Barne-partaidetza.* Konpromisoa, lankidetzeta eta komunikazio positiboa dira barne-partaidetzaren ardatz. Ezaugarriok onuragarriak dira ELKARTEANentzat, bai eta egiten duen lanerako ere.
- *Lanaren eta ekarpenen kalitatea.* Barrura eta kanpora begira egiten diren dokumentuek eta proposamenek ondo eginak izan behar dute, maila tekniko handikoak eta oinarri sendoak. Horretaz gainera, barne-antolamenduak ondo egitura-tua eta argia behar du izan, eta eginkizunak eta erantzukizunak banatu egin behar dira; eta mekanismoak ere izan behar ditu koordinatzeko, komunikatzeko eta erabakiak hartzeko. Eta mekanismo horietan, ELKARTEANen elkarre kideetako lantalde teknikoen ekarpenak eta partaidetzak ondo antolatua eta zentzuzkoa behar du izan.
- *Elkarre kideen heterogeneotasuna eta kudeaketa-autonomia.* ELKARTEANen elkarre kide bakoitzak historia eta ibilbide jakin bat egin du, eta testuinguru jakin bati erantzuten dio. ELKARTEANek ez ditu zertan homogeneizatu elkarre kideen alderdi hauek: antolamendua, elkarre-bizitzaren garrantzia, barne-dinamikak, lurraldeko administrazio publikoekin duten aldebiko harremana, kudeaketa-bolumena, eta ematen dituzten zerbitzuen eta egiten dituzten

ekintzen ikuspuntua. Elkarte ki-deek hitzarmenak eta iradokizunak egin ditzakete. Hitzarmen eta iradokizun horiek lotesleak izango dira, baldin eta ELKARTEANen gobernu-organoek hala hitzartzen badute. Elkarte kideen interes komunak dira ELKARTEANen lanaren oinarri. Interes horiek elkarteek bere hitzartzen dituzte, eta ez daude behartuta alde zuzenetik elkarte guztientzat hitzartu ez diren alderdi, iritzi eta neurriak homogeneizatzen; hain zuzen ere, ELKARTEANen misioan dago jasota elkarte guztientzat zer hitzartu den.

ELKARTEANen balioak eta printzipioak, beste gizarte-erakundeekin eta ingurunearekin dituen harremani dagokienez:

- *Elkartasuna eta lan-kidetasuna aktiboa.* ELKARTEANen filosofiaren parte dira. Modu aktiboan hartzen du parte beste erakunde batzuetan eta ingurunean, proposamenak eginez, interes komunak eta indartzen eta batzen gaituzten alderdiak sendotuz, eta heterogeneotasuna eta desberdintasunak esplizitu eginez eta errespetatuz.
- *Aukera-berdintasuna.* Horixe da ELKARTEANen aldarrikapen, diskurtsoaren eta kanpo-eskakizunen ardatza, eta argi eta garbi adierazten du hori, bere adierazpenetan eta iritzia ematean.

Ordezkaritza izatea. ELKARTEANek ikuspegi hau helarazi behar du: kolektiboko pertsonen ordezkaritza dela, haien premien nahiz interesen ordezkaritza dela, eta bertan, ideiak eta proposamenak adieraztean, kon-

tuan hartzen direla esperientziak eta alderdi teknikoak.

ELKARTEANen lehentasun estrategikoak (2011-2014):³

ELKARTEANek lehentasuneko ekin-tza-ardatz eta -ildo hauek jaso ditu 2011-2014 Plan estrategikoan:

1. ardatz estrategikoa:

ALDARRIKAPEN POLITIKOA

Ekintza-ildoak:

- 1.1 Gizabanakoaren autonomia eta bizitza autonomoa eta independentea sustatzeko baldintzak ezartzen dituzten politika publikoen alde egitea, laguntza-zerbitzuen eta norbanakoaren hazkuntzarako zerbitzuen bidez.
- 1.2 Inklusio-politika aktiboak eskatzea, desgaitasun fisikoa eta organikoa duten pertsonen modu normalduan parte har dezaten hezkuntza-, prestakuntza-, lan- eta osasun-arloetan, bai eta gizarte-zerbitzuen arloan ere.
- 1.3 Administrazio publikoei eskatzea irisgarritasunaren arloan aurrera egiteko, 20/97 Legea garatuz, gizartean parte hartze eskubidea bermatzeko.

2. ardatz estrategikoa:

KANPO- ETA BARNE-KONTZIENTZIAZIO SOZIALA

Ekintza-ildoak:

- 2.1 Herritarrak kontzientziatzeko eta sensibilizatzeko lana, desgaitasun fisikoarekin eta organikoarekin lotutako estereotipoak gain-

³ Iturria: ELKARTEANen 2011-2014 Plan estrategikoa.

ditzeko, eta elkartasun aktiboa bultzatzea, herritarren eskubi-deak benetan bete daitezela eskatzeko.

2.2 Hirugarren sektoreko sareetan eta foroetan modu aktiboan parte hartzea, proposamenak egitea, eta desgaitasun fisikoa eta organikoa duten pertsonen eta haien erakundeen iritziak argi eta garbi adieraztea; hitzarmenak eta aliantzak egitea antzeko interesak dituztenekin; beste interes eta ikuspuntu batzuk dituztenekin hitz egitea; eta ekarpenak egitea, bereziki, desgaitasun guztiei dagozkien interesen gainean (Edekak definitu ditu desgaitasun horiek).

2.3 ELKARTEANen prestakuntza-programak diseinatzea eta garatzea. Programa horiek elkarte kideetako partaideentzat dira, eta helburutzat dute ELKARTEANen nortasuna sustatzea, bai eta haren aldarrikapen-ekintza eta elkarte kideen elkarte-bizitza sustatzea ere.

3.3 ELKARTEANen barruan, lidergo politikoarekin eta teknikoarekin lotutako dinamikak aztertzea eta indartzea, eta, kanpora begira, ordezkari izateko mekanismoak eta irizpideak aztertzea eta indartzea.

3. ardatz estrategikoa:

ELKARTEANEN ANTOLAMENDUAREN KUDEAKETAREN GARAPENA

Ekintza-ildoak:

3.1 ELKARTEANen antolamenduegitura diseinatzea eta garatzea.

3.2 Mekanismo batzuk zehaztea eta abian jartzea, ELKARTEANen elkarte kideetako lantalde teknikoek beren esperientzien eta egiten jakitearen berri eman diezaioten elkarri.

DOKUMENTU HONEN AURKEZPENA ETA ES- PARRUA

ELKARTEANek, bere misioa betetzean, eta ezarritako balioekin, printzipioekin eta lehentasun estrategikoekin bat, **proposamen batzuk** aurkeztu ditu dokumentu honetan, **EAE**n erantzukizun publikoko maila eta eremu orotan egiten diren politketan eta arau-garapenetan zabaltzeko eta aplikatzeko.

Dokumentu honek, zehazki, gizabanako eta talde hauek ditu **xede**:

- **Legegintzaldi honetan Eusko Legebiltzarra osatzeko euskal herritarrek aukeratu berri dituzten ordezkariak.**
- **Eusko Jaurlaritza osatu berria, eta osatuko diren sailtako arduradunak.**
- **Euskadiko alderdi politiko guztiak.**
- **Foru-aldundietako gobernuak.**
- **Hiru probintzietako batzar nagusietan ordezkaturata dauden taldeak.**
- **EUDEL.**

Eta dokumentu honen helburua da gizabanako eta erakunde horietako bakoitzak, **dagokion erantzukizun-esparruan eta** administrazio, erakunde, organismo publiko edo alderdi politiko den aldetik dituen

eskumenen esparruan, egin ditzakeen ekintza eta ekimen guztiak egin eta bultzatu ditzala, desgaitasun fisikoa edo/eta organikoa duten EAEko pertsonen benetako berdintasuna, inklusioa, irisgarritasun unibertsala eta libreki hautatu duten bizimoduak dutela bermatzeko.

Horretaz gainera, **kontuan hartu behar dugu hori bultzatzen duen arau eta politika oro onuragarria izango dela, ez bakarrik desgaitasunen bat duten pertsona guzti bizi-kalitatea, inklusioa eta parte-hartzea sustatzeko, baizik eta, oro har, herritar guztiena ere bai.**

Hemen jaso ditugun proposamenen euskarri dira, bereziki, **Desgaitasunak dituzten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Hitzarmena**, eta **51/2003 Legea**, abenduaren 2koa, **desgaitasunak dituzten pertsonen aukera-berdintasunari, bazterkeriarik ezari eta irisgarritasun unibertsalari buruzkoa (LIONDAU).**

Hain zuzen ere, hitzarmen horrek exijitu egiten die agintari publikoei ekintza positiboko neurriak, estrategiak, ekimenak eta abar egiteko; horien bidez, **desgaitasunen bat duten pertsonen beren eskubi-**

deak benetan erabili ahal izan ditzaten, besteek dituzten aukera berberekin.

Izan ere, nortasuna askatasunez garatzeko eskubidea betez, desgaitasunen bat duten pertsonak beren bizitzaren gainean erabakiak modu eraginkorrean hartu ahal izateko eta komunitateko bizitzan modu aktiboan parte hartzeko beharrezkoak diren baldintzak bermatze aldera, baldintza jakin batzuk bete behar dira alderdi eta eremu batzuetan; baldintza hauek, hain zuzen:

- **IRISGARRITASUN UNIBERTSALA:** ingurunean eta prozesu, ondasun, produktu eta zerbitzuetan, bai eta objektu, tresna eta gailuetan ere.
- **AUKERA-BERDINTASUNA:** gizabanakoen parte-hartzearen eta garapenaren arlo guztietan (lana, osasuna, aisialdia, kultura, kirola, hezkuntza, etxebizitza eta beste hainbat arlo). Aukeraberdintasunak hau esan nahi du (ikus LIONDAUen 1. artikulua):
 - **BAZTERKERIARIK EZ PAIRATZEA, EZ ZUZENEAN, EZ ZEHARKA,** desgaitasunagatik edo desgaitasunean oinarrituta; eta horren barruan sartzen da ez pairatzea ezein bereizkeria, bazterkeria edo muga, helburutzat edo ondorioztat duena desgaitasunen bat duten pertsonen hau oztopatzea edo deuseztatzea: giza eskubide guztiak eta oinarritzko askatasunak eremu politikoan, ekonomikoan, sozialean, kulturean, zibilean eta beste edozeinetan ber-

dintasun-aukeran erabiltzea, gauzatzea edo onartzea.

- **EKINTZA POSITIBOKO NEURRIAK HARTZEA,** desgaitasunen bat duen pertsonen bizitza politikoan, ekonomikoan, kulturean eta sozialean bete-betean parte hartzeko dituzten desabantailak saihestearren edo konpentsatzearen.
- **BABES-SISTEMA, ETA SISTEMA HORREN LAGUNTZA ESPEZIFIKOAK:** bereziki, gizarte-zerbitzuen sistemaren laguntzak: etxez etxeko eta egoitzetako zerbitzuak eta laguntza, bai eta komunitateari laguntzeko bestelako zerbitzuak ere, bana-banako laguntza barne; zehazki, bizitza errazteko, komunitatean gizarteratzeko eta bakartuta edo komunitatetik baztertuta ez gelditzeko beharrezkoa den bana-banako laguntza. Multzo horretan sartzen dira autonomia eta bizitza independentea bultzatzeko produktuak eta laguntza teknikoak.
- Desgaitasunen bat duten pertsonen **AUKERA-ASKATASUNA:** zehazki, bizilekua eta bizilagunak aukeratzeko askatasuna izatea, besteen aukera berberekin, eta ez egotea bizimodu jakin batera mugatuta; norberaren bizitzaren gainean erabakiak hartu ahal izatea, eta nortasuna aske garatu ahal izatea.
- **KOMUNITATEAN MODU AKTIBOAN PARTE HARTZEA:** komunitatean bete-betean gizarteratzea eta parte hartzea.

- **GAITASUNAK GARATZEA ETA PERTSONAK AHALDUNTZEA**, eskubide guztiak erabiltzeko. Desgaitasunen bat duten pertsonak trebatzea, beren eskubide guztiak erabil ditzaten eta ekonomian eta gizartean parte hartzeak dakartzan onura guztiak izan ditzaten.

Hain zuzen, desgaitasunen bat duten pertsonak bizitza politikoa, ekonomikoa, kulturala eta sozialean bete-betean, aukera-berdintasunez eta modu efektiboan parte hartu ahal izan dezaten, **baldintza eta laguntza batzuk bermatu behar dira, eremu eta sistema guztietan**. Zehazki, hauek dira baldintza eta laguntza horiek bermatu behar dituzten eremu eta sistemak: pertsonak jarduteko, hazteko eta parte hartzeko dituen eremu eta sistemak, edota laguntza, baliabideak edota zerbitzuak eman behar dizkietenak (hezkuntza, lana, kultura, garraioa, aisialdia, kirola, osasuna, gizarte-zerbitzuak, etxebizitza...).

Horiek guztiek konpromisoak hartu behar dituzte eta inplikatu egin behar dute, lankidetzara eta zeharkakotasunara ardatz hartuta, desgaitasun fisikoa edo/eta organikoa duten pertsonen alde: erabat gara daitezten, benetako aukera-berdintasuna izan dezaten, komunitatean modu aktiboan parte har dezaten eta hautatu duten bizimodua bete-betean bizi dezaten sustatu eta erraztu behar dute.

Esparrua hori izanik eta helburu hori lortze aldera, jarraian, ELKARTEANen proposamenak jasoko ditugu, EAEn erantzukizun publikoaren maila eta eremu orotan egiten diren

politiketan eta arau-garapenetan zabaltzeko eta aplikatzeko.

ELKARTEANen PROPOSAMENAK

EAEen ERANTZUKIZUN PUBLIKOKO MAILA ETA EREMU OROTAN EGITEN DIREN POLITIKETAN ETA ARAU- GARAPENETAN ZABALTZEKO ETA APLIKATZEKO

Jarraian, ELKARTEANen proposamenak jasoko ditugu, EAEko erantzukizun publikoko maila eta eremu orotan egiten diren politiketan eta arau-garapenetan zabaltzeko eta aplikatzeko.

Lehenik eta behin, proposamen orokorren berri emango dugu, eta, bigarrenik, arloz arloko proposamen espezifikoaren berri.

PROPOSAMEN OROKORRAK

1. Oro har, ELKARTEANek zera aldarrikatzen du: **TINKO EUSTEA ETA EZ UKO EGITEA EAEen, HIRU OINARRI GARRRANTZITSUENETAN –HOTS, HEZKUNTZAN, OSASUNEAN ETA PENTSIOETAN– EMAN DITUGUN AURRERAPAUOEI, eta laugarren oinarriari –hots, GIZARTE-ZERBITZUEI– eustea eta arlo hori ezartzeko aurrerapausoak ematen jarraitzea, honela:**

- Sistemaren eskubidea eta unibertsaltasuna bermatzeko funtsezko elementuak irmoki garatuz (Gizarte-zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legean jasota daude elementu horiek).
- Euskadin, Autonomiarako eta Mendetasunaren Arretarako Sistema (SAAD) irmoki garatuz, mendetasun-egoeran daudenek eta haien senideek beharrezko duten laguntza jasotzea bermatzeko. Kasu horretan, uko egin behar diegu sistema hori zabaltzean Estatu jartzen ari den mugei eta murrizketei.

ELKARTEANen ustez, ekonomia-krisiak ezin du inola ere justifikatu murrizketak egitea lau oinarri horien aurrekontu-sailetan. Murrizketa horiek enplegua suntsitzen dute, eta gizarte- eta ekonomia-hazkuntza geldiarazten, eta, horretaz gainera, zuzenean eragiten diete gure gizarteko ahulenei, haien eskubideak murriztuz eta duintasunari kalte eginez.

2. Desgaitasuna **oinarrizko giza eskubideen** kontutzat hartzearen arloan aurrera egin behar da. Desgaitasunaren ikuspegi hori (giza eskubideak betetzearekin lotuta dagoena) 2006an finkatu zen; **Desgaitasunak dituzten Pertsonen Eskubideei buruzko Hitzarmena** onartu zenean, hain zuzen ere. Estatuan, 2009ko maiatzaren 3an sartu zen indarrean (Espainia izan zen hitzarmen hori berretsi zuen lehenengo 20 herrialdeetako bat). Edonola ere, ezinbestekoa da hitzarmen hori, legeetan jasotzeaz gainera, gizabanakoen pentsamoldean eta eguneroko bizitzan hezuramitzea. Horregatik, behar-beharrezkoa da mekanismoak izatea, herritarrak sentibilizatzeko eta desberdintasuna eta desgaitasuna errespetatzera bultzatzeko, giza aniztasunaren beste elementu bat dela onartuta. Gizartearen eta erakundeen mugak ezabatzea izan behar dute helburu mekanismo edo kanpaina horiek; zehazki, desgaitasunak dituzten pertsonen gainean dauden aurreiritziak eta estereotipoak ezabatzea.
3. EAEko lege oro eta foru-lege oro aztertu eta aldatu behar da, Estatuak **Desgaitasunak dituzten Pertsonen Eskubideei buruzko Hitzarmena** onartu izanak ekarri duen arau-esparru berrira egokitzeko, eta, era berean, desgaitasunak dituzten pertsonen aurkako bereizkeria oro aurreikusi eta ezabatzeko.
4. Autonomia-, foru- eta toki-eskumenen arloan, behar adina lege eta arau-xedapen egitea bultza-

tu behar da, **desgaitasunak dituzten pertsonak bete-betean eta aukera-berdintasunez gizarteratuko direla bermatzeko.**

5. Lege-esparru edo -marko bat onartu eta aplikatu behar da (autonomia- eta foru-esparruetan). Abenduaren 2ko 51/2003 Legeak, desgaitasunen bat duten pertsonen aukera-berdintasunari, bazterkeriarik ezari eta irisgarritasun unibertsalari buruzkoak, ezarritakoa garatze aldera, lege-esparru horretan ezinbesteko eskakizuntzat ezarri behar da **desgaitasunaren eraginaren balorazioa sartzeara:**

- Egiten diren arau-xedapenetan (urriaren 13ko 30/2003 Legean, Gobernuak egiten dituen arau-xedapenetan genero-eraginaren balioespena jasotzeko neurriei buruzkoan, zehaztu zen bezalatsu).
- EAEn eta lurralde historikotatik egiten diren politikak diseinatzean, abiaraztean eta ebaluatzean, politika horiek edozein arlotakoak direla ere (lana, hezkuntza, osasuna, aisialdia, kultura, kirola, irisgarritasuna, gizarte-zerbitzuak, etxebizitza...).

Lege-esparru horretan, ezinbestekotzat joko da hauek agertzea:

- Arauak garatzeko eta politikak diseinatzeko, abiarazteko eta ebaluatzeko prozesu orotan, agintari publikoek nahitaez txosten bat jaso beharra, ezartzen dituzten neurriek desgaitasunak di-

tuztenengan zer eragin izango duten azaltzeko.

- Nahitaez bete beharrekoa izatea maila guztietako plan eta zuzentarauean, desgaitasunaren benetako zeharkakotasuna ekar dezaten.
6. Sektore publikoko kontratuen Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 117. artikuluari jarraituz, **kontratazio publikoetan xedapen teknikoak definitzen direnean, kontuan hartu beharko dira**, ahal den heinean, **irisgarritasun unibertsalaren eta guztientzako diseinuaren irizpideak** (ikus termino horien definizioa abenduaren 2ko 51/2003 Legean, desgaitasunaren bat duten pertsonen aukera-berdintasunari, bazterkeriarik ezari eta irisgarritasun unibertsalari buruzkoan), baldin eta kontratuaren xedeak ingurumenari eragiten badio (hala gertatuz gero, iraunkortasuna bermatzeko eta ingurumena babesteko irizpideak aplikatu beharko dira).
 7. Horretaz gainera, oro har, estrategia bat sartu beharko da, **generoaren zeharkakotasuna ez ezik aniztasunarena ere** kontuan hartuko duena. Kontua da generoaren ikuspegia sartzea, aniztasuna eremu orotan egon dadin, Eusko Jaurlaritzaren Berdintasunerako V. Planaren ildoari jarraituz.

PROPOSAMEN ESPEZIFIKOAK, ARLOAREN ARABERA

ELKARRIZKETA ZIBILA

Printzipio horri jarraiki, desgaitasunaren bat duten pertsonak eta haien senideak ordezkatzen dituzten erakundeek parte hartuko dute, legeetan eta arau-xedapenetan ezarritakoaren arabera, desgaitasunak dituzten pertsonen gainean egiten diren politika ofizialak diseinatzen, abiarazten, haien jarraipena egiten eta ebaluatzen. Politika horiek, besteak beste, bermatu egin beharko dute desgaitasunaren bat duten haurrek bi eskubide hauek izatea: bat, eragiten dieten auzien gainean iritzia libreki emateko eskubidea; eta, bi, eskubide hori baliatze aldera, laguntza egokia jasotzeko eskubidea, haien desgaitasunaren eta adinaren arabera (LIONDAUen 2.e) artikulua).

Esparru horri dagokionez, ELKARTEANen aburuz, administrazio eta agintari publikoek baldintza eta mekanismo batzuei eutsi behar diete, desgaitasunak dituzten pertsonen berdintasuna, inklusioa, parte-hartzea eta garapena lortzeko funtsezkoak diren esparru eta sistema guztietan elkarrizketa zibila bermatzeko.

ELKARTEANen aburuz, Euskadiko Elkarrizketa Zibilaren aldeko Mahaia eta Bizkaiko Elkarrizketa Zibilaren aldeko Mahaia oso ekimen interesgarriak eta baliagarriak dira. Azken urteotan mahai-inguru horietan egoniko lanak bide eman dio elkarte-

mugimenduari funtsezko arloetan arau- eta plangintza-ekimenak egiten benetan eta modu eraginkorren parte hartzeko, eta modu aktiboan negoziatzeko.

Alde horretatik, garrantzitsua iruditzen zaio Euskadin eta Bizkaian izandako esperientziak finkatzea, eta Gipuzkoara eta Arabara zabaltzea.

Horretaz gainera, Euskadiko Elkarrizketa Zibilaren aldeko Mahaiari dagokionez (Eusko Jaurlaritzak bultzatzen du mahai hori), ezinbestekoa da mahai hori instituzionalizatzen eta egituratzen duen dekretua onartzea. Arau-garapen horretan, kontuan hartu beharko dira hauek guztiak:

- Ekimen horrek bermatu egin behar du gizarte-erakundeek benetan eta modu eraginkorren parte hartzea honako kolektibo hauen gainean egiten diren politika ofizialak diseinatzeko, abiarazten, haien jarraipena egiten eta ebaluatzen: desgaitasunak dituzten pertsonak, gizarte-bazterkeria pairatzen duten pertsonak edo pairatzeko arriskua dutenak, adinekoak eta gure gizartean egoera ahulean dauden gainerako kolektiboak.

Halaber, kontuan hartu beharko da elkarrizketa zibilaren definizioa, desgaitasunen bat duten pertsonen aukera-berdintasunari, bazterkeriarik ezari eta irisgarritasun unibertsalari buruzko abenduaren 2ko 51/2003 Legearen 2.e) artikuluan jasoa (abuztuaren 1eko 26/2011 Legeak, araudia Desgaitasunen bat duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Hitzar-

menara egokitzekoak, idatzia): “printzipio horri jarraituz, desgaitasunak dituzten pertsonak eta haien senideak ordezkatzeko dituzten erakundeek parte hartuko dute, legeetan eta gainerako arau-xedapenetan ezarritakoaren arabera, desgaitasunak dituzten pertsonen gainean egiten diren politika ofizialak diseinatzeko, abiarazten, haien jarraipena egiten eta ebaluatzen. Politika horiek, besteak beste, bermatu egin behar dute desgaitasunen bat duten haurrek bi eskubide hauek izatea: bat, eragiten dieten auzien gainean iritzia libreki emateko eskubidea, eta, bi, eskubide hori baliatze aldera, laguntza egokia jasotzeko eskubidea, haien desgaitasunaren eta adinaren arabera”.

- Elkarrizketa zibilaren printzipioa betetzeko (ikus aurreko idatziazatia), baldintza jakin batzuk bermatu behar dira, eta zeharkakotasunez aplikatu, pertsona horien bizi-kaliterako, autonomiarako eta garapenerako esparru eta sistema guztietan: gizarte-zerbitzuetan, enpleguan, osasunean, hezkuntzan, aisialdian, garraioan, etxebizitzan, kulturaren, irisgarritasunean...

Horretarako, kontuan hartu beharko da politiken zeharkakotasunaren definizioa, abenduaren 2ko 51/2003 Legearen 2.f) artikuluan jasoa (Desgaitasunen bat duten pertsonen aukera-berdintasunari, bazterkeriarik ezari eta irisgarritasun unibertsalari buruzko Legean): “desgaitasunaren arloko politiken zeharkakotasuna da printzipio bat,

zeinaren arabera administrazio publikoen ekintzak ez dauden mugatuta pertsona horientzako plan, programa eta ekintza espezifikokoak egitera, baizik eta bere gain hartzen ditu ekimen publikoko esparru guztietako politika eta ekintza-ildo orokorrak ere, desgaitasunak dituzten pertsonen premiak eta eskakizunak kontuan hartuta”.

- Hirugarren gizarte-sektoreko erakundeen parte-hartzea mugatu behar da. Parte hartzeko, direlako erakundeek helburutzat izan beharko dute, besteak beste, pertsonen eta kolektiboen eskubideen eta interesen ordezkari izatea, eta berariaz adierazi beharko dute hori beren estatutuetan. Alde horretatik, ELKARTEANen aburuz, Mahai horretan ez lukete parte hartu behar beste interes batzuk dituzten erakundeek: gizarte-ekonomiako elkarteek, enpresek eta patronalek.

GIZARTE-ZERBITZUAK

- Ez aplikatzea, ez Euskadin, ez lurralde historikoetan, SAAD zabaltearen aurkako murrizketak eta mugak; zehazki, uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege-Dekretuak, aurrekontu-egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko neurriak buruzkoak, SAAD zabaltearen aurka estaturako ezarritako mugak eta murrizketak.
- Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazioen eta zerbitzuen kartera:

Hurrengo Eusko Jaurlaritzak onartzekoa duen karterak modu

eraginkorrean bermatu beharko ditu prestazio batzuk, **nahikoak eta egokiak izango direnak**, premia hauei erantzuteko: modu independentean bizitzeko eta komunitatean parte hartzeko sistema horren laguntza behar duten pertsona guztien premiei, eta, bereziki, desgaitasun fisikoa edo/eta organikoa duten pertsonen eta haien berezko laguntza-sareen premiei.

Horretaz gainera, ELKARTEANen aburuz, oso garrantzitsua da kartera horrek **GIZABANAKOEN GARAPENERAKO LAGUNTZAK jasotzea eta lehentasuna ematea GIZABANAKOAK PERTSONEN BEREZKO INGURUNEAN EGOTEARI.**

Halaber, kartera horrek bermatu egin behar ditu **GIZABANAKOEN ESKUBIDE HAUEK IZATEKO BEHARREZKOAK DIREN LAGUNTZA GUZTIAK: BIZIMODUA ETA BIZITZA-EREDUA (NON ETA NOREKIN BIZI) AUKERATZEKO ESKUBIDEA, ETA KOMUNITATEAN BETE-BETEAN GIZARTERATZEKO ETA PARTE HARTZEKO ESKUBIDEA**, komunitatetik bakartu eta aldendu ez daitezen (Desgaitasunak dituzten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Hitzarmenaren 19. artikulua).

Horretarako, ELKARTEANI ezinbestekoa iruditzen zaio:

- **KARTERAREN PRESTAZIOEN KALITATE- ETA BERTINTASUN-BALDINTZAK ZEHAZTEA:** karteran (edo prestazioen baldintza teknikoei, materialei eta funtzionalei

buruzko arau osagarrietan), zehaztu egin behar dira prestazio horien garapenerako gutxieneko kalitate-baldintzak, eta, era berean, prestazio horietan, bermatu egin behar da edukiak berberak izatea Euskadiko herritar guztientzat (edonon bizi direla edo edozein dela ere zerbitzua kudeatzen duen erakundea). Zehazki: profil profesionalak, zuzeneko eta zeharkako arretaren ratioak, erreferentziazko hitzarmen kolektibo minimoa, beste baldintza tekniko batzuk nahiz funtzionamenduari lotutakoak, eta baldintza materialak: kokapena, ahalmena, dimentsioa, egitura, teknologia eta oinarrizko ekipamendua, zerbitzuaren edo prestazioaren fitxa, bizi-kalitatearen helburuak.

- **ZERBITZUAN ESKU HARTZEKO PLANA:** oro har, ezinbestekoa da karteraren prestazio guztietan plan bat egotea; zerbitzuan esku hartzeko plan bat, hain zuzen ere. Alegia: zerbitzu jakin bat jasotzen dutenek zerbitzu horren plana egiten parte hartuko dute. Plan horretan, hau guztia jasoko da: esku hartzearen helburuak, bizi-kalitatearen arlo guztietan; egin beharreko ekintzak; eta planaren jarraipena, ebaluazioa eta eguneraketa egiteko jarraibideak eta irizpideak.
- **BANAKAKO LAGUNTZAILEAREN PRESTAZIOA, OINARRIZKO LAGUNTZAREN FIGURA DEN ALDETIK:** Des-

gaitasun fisikoa edo/eta organikoa duten pertsonak, beste hainbatek bezala, banakako laguntzaileak behar izaten dituzte eskubide guztiak baliatzeko, komunitate-bizitzako arlo guztietan bete-betean parte hartzeko eta hautatu duten bizimodua bizitzeko. Horren harira:

- o Laguntza horren premia duen orok izan behar du prestazio hori jasotzeko aukera; prestazioa ez da mugatu behar mendetasun handia dutenei ematera, ez eta lan- eta hezkuntza-arloetara ere.
- o Zilegi izan behar du prestazio hori beste prestazio batzuekin batera jaso-tzeak. Esate baterako, zilegi izan behar du prestazio hori eta familia zain-tzeko prestazioa jaso ahal izateak; izan ere, prestazio horiek premia ezberdinei erantzuten diete, baina elkarren osagarri dira.
- o Prestazioa jasoko duen pertsonak aukera izan behar du laguntza hori nork emango dion aukeratzeko. Ezinbestekoa da prestazioa emango duen pertsonak enpatia sentitzea desgaitasuna duen pertsonarekiko, eta azken horrek uste osoa izatea prestazioa emango duenarengan; izan ere, harentzat oso intimoak diren alderdietan jarduten da prestazioa ematen duen pertsona.

o Ordutegiek eta arreta-egunek ahalik eta malguenak izan behar dute.

- **LAGUNTZA ESPEZIFIKOAK, DESGAITASUNEN BAT DUTEN PERTSONAK EDO MENDE-TASUN-EGOERAN DAUDEN PERTSONAK ZAIN-TZEN DITUZTEN FAMILIEN-TZAT ETA PERTSO-NENTZAT:** Atsedean emateko zerbitzuak, laguntza psikolo-gikoa, prestakuntza...
- **PRESTAZIOA JASOTZEKO BALDINTZA BATZUK, ETA ARRISKUA ETA EGOERA AZTERTZEKO SISTEMA BAT; HOTS, MENDE-TASUNAREN, BABESGABE-TASUNAREN ETA GIZAR-TE-BAZTERKERIAREN EGOERA AZTERTZEKO SISTEMA. SISTEMA HO-RREK EZ DITU "KANPOAN UTZI" BEHAR DESGAI-TASUN FISIKOA EDO/ETA OR-GANIKOA DUTELAKO EDO HALAKOREN BATEN SENI-DE DIRELAKO ZERBITZU JAKIN BATZUEN PREMIA DUTEN PERTSONAK.** Hori bermatzeko, kolektiboen ordezkari diren gizarte-eki-meneko erakundeek (bes-teak bestek, ELKARTEANek) benetan parte hartu behar dute, zertan eta arriskua eta mendetasunaren, babesga-betasunaren eta gizarte-baz-terkeriaren egoera aztertze-ko tresnak, adierazleak eta iriz-pide teknikoak arautzen, bai eta zerbitzuen egokitasuna-ren gainean irizpideak eta xe-hetasun teknikoak ezartzen ere.
- **PRESTAZIOAK BATERAGA-RRIAK DIREN AZTERTZE-KO SISTEMA BAT. SISTEMA HORREK EZIN DIE JARRI OZTOPORIK PRESTAZIO JA-KIN BATZUEN PREMIA DU-TENEI PRESTAZIO HORIEK JASOTZEKO, ETA KONTUAN HARTUKO DITU PRESTAZIO BAKOITZAREN HELBURU ZEHATZAK.** Kontuan hartu behar da, batetik, zer helburu duen prestazio bakoitzak, eta bestetik, gizabanakoen edo/eta familien zer premia asetzen dituen. Hori abia-puntu hartuta, bateraezinta-sunen araubidea ezarriko da. Edonola ere, bermatu egin behar da gizabanakoen autonomiarako eta bizi-ka-litaterako oinarriko premia guztiak asetzen direla.
- **GIZARTE-ERAKUNDEEN IBILBIDEA ETA EKARPE-NEN BALIOA AINTZATE-TSIKO DUEN SISTEMA BAT, HAIEN LANKIDETZA MODU ERAGINKORREAN TXERTA-TUKO DUENA** (12/2008 Le-gearren V. idazpuruan ezarri-tako harreman-bide eta -ere-du guztien bidez).
- **KARTERA EGUNERATZE-KO PROZEDURA BAT, ZER-BITZU-HARTZAILEEN OR-DEZKARI DIREN GIZARTE-ERAKUNDEEN ETA FORU-ALDUNDIEN EKARPENAK ETA EGINKIZUN AKTIBOA ZEIN DIREN ADIERAZI ETA JASOKO DUENA.**
- **MODU ERAGINKORREAN ARITU BEHAR DUTE LANKI-DETZAN GIZARTE-ZERBIT-**

ZUEN EUSKAL SISTEMAK ETA BESTE SISTEMA BATZUEK; BESTEAK BESTE, ENPLEGU-, HEZKUNTZA-, ETXEBIZITZA-, OSASUN-, GARRAIO-, KULTURA- ETA KIROL-SISTEMEK.

Eragile guztiek parte hartu behar dute, eta konpromisoa hartu behar dute baldintza jakin batzuk lortzeko, euskal herritarrek aukera izan dezaten beren eskubide guztiak erabiltzeko, komunitate-bizitzaren arlo guztietan bete-betean sartzeko eta parte hartzeko, eta hautatu duten bizimodua bizitzeko.

- **LANKIDETZA ERAGINKORRA FORU-, AUTONOMIA-ETA UDAL- ESKUMENEO ZERBITZUEN ARTEAN:** Koordinazio-mekanismoak ezarri behar dituzte, banakako laguntza egokia izan dadin; hau da, hainbat motatako babesgabatasun-egoerak bizi dituzten pertsonen (esate baterako, desgaitasunen bat duten pertsonen eta gizartetik baztertuta daudenen) ematen zaien laguntza egokia izan dadin. Bateragarritasunen sistema bat eratu behar da gizarte-babeserako esparruen artean (emakumeen, genero-indarkeriaren, gizarte-bazterkeriaren eta beste hainbat esparruren artean). Kontuan hartu behar da gizabanako batek hainbat esparrutako laguntzaren premia izan dezakeela. Ezin muga eta sailka ditzakegu gizabanakoak arlo jakin batean; hau da, esku-hartzea ezin da

desgaitasunaren arloan (edo beste arlo batean) soilik egin.

- **IRISGARRITASUN UNIBERTSALA ETA GUZTIENTZAKO DISEINUA.** Karterari buruzko dekretuan, ezinbestekotzat joko da zerbitzu guztiek betetzea irisgarritasun unibertsalaren eta guztientzako diseinuaren irizpideak, abenduaren 2ko 51/2003 Legean xedatutakoari jarraituz (desgaitasunen bat duten pertsonen aukera-berdintasunari, bazterkeriarik ezari eta irisgarritasun unibertsalari buruzko legea).
 - **LAGUNTZA-PRODUKTUAK ETA LAGUNTZA TEKNIKOAK:** bermatu egin behar da laguntza-produktu eta laguntza tekniko egokiak eta nahikoak izango dituztela halakoen premia dutenek (osasun-sistemarekin elkarlanean emango dira laguntza teknikoak). Ezinbestekoa da laguntza horien premia duten pertsona guztiek jaso ahal izatea laguntza horiek, bai eta laguntza horien kostua gutxira edo partzialki ordaindu ezin dutenek ere.
 - **Sistemaren zerbitzuen erabiltzaileek zerbitzuen finantzazioan parte hartzea:**
- ELKARTEANen proposamena:
- **Gizarte Zerbitzuen Erantzukizun Publikoko Sareko prestazio eta laguntza-zerbitzu profesional guztiek doakoak izan behar dute onuradunentzat,** karteran ezartzen diren baldintzetan, onuradunen premien arabera eta nahitaezko

kontraprestaziorik gabe. Erabiltzaileek ez dute zertan ordaindu kontraprestazio ekonomikorik karteran jasotako zerbitzuetako edozeinetako laguntza profesionaleko zerbitzuen trukean eta laguntza profesionalen trukean. Gizabanakoak desgaitasunagatik baztertzea da hori.

- **Arlo horretan ezartzen diren arauen ondorioz, ezin gerta daiteke erabiltzaileek gehiago ordaindu behar izatea jasotzen duten zerbitzuagatik.** Edonola ere, erabiltzaileek gehiago ordaindu beharko dute, baldin eta baliabide ekonomiko gehiago jasotzen badituzte, edo prezio publiko edo zerbitzu-tasa batek doakoa izateari uzten badio.
- **Ezin zaio inori ukatu bere egoerara eta premietara egokitzen diren zerbitzu egokiak jasotzea, arrazoi ekonomikoak direla eta.** Horretaz gainera, zenbat ordaintzen duen erabiltzaile batek zerbitzu baten trukean, horrek ezin baldintza dezake zerbitzu horren kalitatea.
- **Erabiltzaileek zerbitzuen finantziazioan parte hartu behar duten kasuetan, ELKARTEANek hau proposatzen du:**
 - o **Kostuak kalkulatzeko, hasierako kostua hartu behar da kontuan** (kontraprestazioaren zenbatekoa ez da ezarriko establezimenduan edo zerbitzuan sortzen den kostuaren gainean, baizik eta erabiltzailearen etxean sortuko lukeen kostuaren gainean, erabiltzailearen maila ekonomikoari dagokion etxe bateko erosketa-saskiaren arabera).
 - o **Kopuru hori erabiltzailearen diru-sarreraren ehuneko jakin bat izango da, gehienez ere.** Ehuneko hori ezartzeko, kontuan hartuko dira prestazio publikoengatik ordaintzen diren errentak eta, hein txikiagoan, lanagatik ordaintzen diren errentak. Helburua da oztoporik ez jartzea lan-merkatuan sartzeko.
 - o Alde horretatik, CERMIK (Desgaituen Ordezkarien Espainiako Batzordeak) hau proposatu du: mendetasun-egoeran dauden 65 urtetik beherakoek zerbitzurik ez ordaintzea, baldin eta haien ahalmen ekonomikoak ez badu gainditzen 2,5 aldiz SMI (lanbide arteko gutxieneko soldata), eta gehienez % 75 ordaintzea, baldin eta zerbitzuek koordainketa-karga handia badute.
 - o **Kontraprestazioek ezin diote eragin gizarte-zerbitzuak erabiltzen dituztenen senideen edo tutoreen errentari edo ondareari, ez zuzenean, ez zeharka, ez solidarioki, ez subsidiarioki.**
- Desgaitasun fisikoa edo/eta organikoa dutenentzat

ezinbestekoak diren zerbitzuetatik, ELKARTEANen ustez, zerbitzu hauek **doakoak izan behar dute**, eta koordinketarik gabekoak:

- Etxez etxeko laguntza-zerbitzua.
- Autonomia-murrizketak eragindako premiei erantzuteko zerbitzua edo eguneko zentroa.
- Modu independentean bizitzeko laguntzeko zerbitzua.
- Laguntza teknikoak emateko eta ingurune fisikora egokitzeko zerbitzua.
- Garraio egokituko zerbitzua.

- **Harreman juridiko publikoaren eta pribatuaren ereduak: Gizarte-zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen V. idazpuruaren zehaztapena (ekimen pribatuaren eskuharria):**

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren baitako zerbitzuen kudeaketa publikoaren alde dago ELKARTEAN.

Edonola ere, ekimen pribatuek zerbitzu horien kudeaketan esku hartu behar dutenez, ELKARTEANek ezinbestekotzat jotzen du desgaitasuna duten pertsonen premia guztiak asetzen direla bermatzea, bai eta laguntza egokiak eta kalitatezkoak ematen direla bermatzea ere, eskuhartze horiek egiterakoan. Horretarako, ezinbestekoa da:

- Gizarte Zerbitzuei buruzko Legean jasotako harreman juridiko publikoen eta pribatu-

tuen eredu guztiak zehaztea, eta mekanismoak ezartzea gizarte-ekimeneko erakundeetara lehentasuna emateko (merkataritza-erakundeen aurretik), Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren parte har dezaten eta harekin lankidetzan jardun daitezten.

- Itun-araubidearen gainean onartuko den dekretuak oinarritzko alderdi oro arautzea. Dekretu horrek **askatasun pixka bat eman behar die forualdundietara araubidea aplikatzeko eta garatzeko**; halaber, aukera eman behar die beste harreman juridiko publiko eta pribatu batzuk ezartzeko, baldin eta harreman horiek egoikiagoak badira beren lurraldeko errealitateari erantzuteko; betiere, beren eskumenen arabera eta gizarte-zerbitzuen arloan.
- Kontuan hartzea itun-araubidea administrazio publikoen eta gizarte-ekintzako erakundeen arteko harreman juridiko publikoen eta pribatuaren eredu bat dela eta ez dela bakarra. Badaude beste eredu batzuk (lankidetzaren hitzarmenak, diru-laguntzak, esparru-hitzarmenak). Eredu horien helburua da, oro har, aukera ematea gizarte-erakundeek hainbat arlotan (zerbitzuak, eskubideak, gizarte, I+G+B...) egiten dituzten gizarte-intereseko ekintzei laguntza emateko.

Alde horretatik, itun-araubideak ezin du baztertu lankidetzaren hitzarmenak egitea

(12/2008 Legearen 69. artikuluan salbuespen gisa arautzen badira ere): 1) zerbitzuak kudeatzeko, 2) laguntza emateko gizarte-ekimeneko erakundeek hainbat arlotan (eskubideen babeseta eta ordezkaritza, gizarte-sentsibilizazioa, elkarre-sustapena...) egiten dituzten ekimenei.

Horretaz gainera, kontuan hartzekoa da Lankidetzako esparru-hitzarmenaren Legean jasotako xedapena (70. art.).

- Harreman juridiko publikoen eta pribatuen edozein eredu erabiltzen dela ere, **ekonomia- eta finantza-egonkortasuna eta -jarraitutasuna bermatu beharko dira. Finantziarioak egonkorra, egokia eta bidezkoa izan beharko du, eta hau guztia bermatu:**
 - o Zerbitzuen kalitatea
 - o Profesionalentzako lanpostu egonkorra eta kalitatezkoak
 - o Gizarte-erakundearen egitura- eta kudeaketa-kostuen estaldura
 - o Sektorean I+G+B estrategiak ezartzea
 - o Ondare-finkotasuna, kaudimena, erakundearen finantzen egonkortasuna eta bideragarritasuna, eta inbertitzeko ahalmena
 - o Zerbitzuen eta erakundearen jarraitutasunari begira lagungarri den oro

FAMILIENTZAKO ARRETA ETA LAGUNTZA, ETA BEREZKO LAGUNTZA-SAREA

- Erkidegoan edo foru-aldundietan, familiei laguntza emateko arau- eta plangintza-ekimenak egiten dira. Ekimen horietan, baina, desgaituak ez dira beti “arreta edo zaintzaren xede”; aitzitik, maiz, desgaituek seme-alabek edo senideek arduratu behar izaten dute, edo mendetasun-egoeran dauden senideak zaindu behar izaten dituzte.

Horregatik, ezinbestekoa da protokolo eta ekintza jakin batzuk xedatzea, desgaituen premiei erantzuteko, kontuan hartuta zainduak izateko premia izateaz gainera, beste pertsona batzuek (senideek, seme-alaba adingabeek zein adindunek) arduratzen direla, hots, zaintzaileak direla. Azken batez, desgaituak beren bizitza-proiektuen protagonista eta erantzule dira.

- Arreta berezia eman behar zaie familia-kide baten mendetasunaren edo desgaitasunaren ondorioz zaurgarritasun- edo larrialdi-egoeran bizi diren familiei.

ENPLEGUA:

Desgaitasun bat dutenek gai izan behar dute beren bizitza modu independentean egiteko. Horrek esan nahi du, besteak beste, autonomia ekonomikoa izan behar dutela, eta, horretarako, lan duina, egonkorra eta kalitatezkoa behar dute. Testuinguru ekonomikoa txarra da, eta suspertze-politiken premia dugu; zehazki, lanarekin lotutako esparruak ez ezik hezkuntza, prestakuntza, zerga-

sistema eta beste hainbat esparru kontuan hartuko dituzten susper-tze-politiken premia.

Gure helburu nagusia da desgaitasun fisikoa edo/eta organikoa duten pertsonak lan-merkatu arruntean erabat sartzea. Hori lortze aldera, ezinbestekotzat jotzen dugu, besteak beste, ekintzak egitea desgaitasun fisikoa edo/eta organikoa duten pertsonentzako enpleguari lotutako esparru guztietan; zehazki:

- **ENPLEGU-POLITIKA AKTI-BOAK EGITEA, DESGAIETUEI ENPLEGU ARRUNTEAN LANERATZEKO LEHENTASUNA EMATEKO** (Ezinduen gizarteratzeari buruzko apirilaren 7ko 13/1982 Legearen VII. idazpuruan jasotakoaren arabera). Urteotan Euskadin enplegu babestua (enplegu-zentro bereziak) zenbat sustatu den, horrenbeste edo gehiago sustatu behar da desgaituen laneratzea. Jendaurreko konpromisoa hartu behar da, enplegu arrunta duten desgaituen kopurua handitzeko, bai eta epe jakin batzuetan handitzeko ere. Lanbidek, funtsezko eragile aktiboa den aldetik, helburuak ezarri, ekintzak egin eta konpromisoak hartu behar ditu, hori lortzeko.

Alde horretatik, pizgarri gehiago eman behar zaizkie desgaitasun fisikoa edo/eta organikoa duten pertsonak kontratatzen dituztenei, eta, horretaz gainera, arautu egin behar dira enpresei laguntza ekonomikoak emateko tresnak (lanpostuak egokitzeko eta irisgarritasuna bultzatzeko ematen dira laguntza horiek). Sustatu

egin behar da enpresa pribatuak enplegu-zentro berezietara joatea lanpostuak enpresa arruntean betetzeko.

- **ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN BALANTZEA EGITEA, ERRESERBA-KUOTA ZER HEINETAN APLIKATZEN DEN IKUSTEKO, ETA NEURRIAK HARTZEA KUOTA HORI EGI AZKI BETE DADIN.** Horretarako, erreserba-kuota nola betearazi hausnartu beharko dute: Legea betetzea exijitu behar dute, kolektibo hori are gehiago gutxietea eragin gabe. Ezinbestekoa da erreserba-kuota ez betetzeagatiko zigorrak aztertzea, bai eta lan-ikuskaritzaren zeregina ere.

Administrazio publikoek tresna oro erabili behar dute kuota betetzen duten enpresak sustatzeko eta kuota betetzen ez duten enpresak baztertzeko. Esate baterako, kuota betetzea, lehentasunezko esleipen-irizpide ez ezik, baldintzatzaile ere izan behar du, besteak beste, administrazio publikoen kontratuak esleitzeko eta diru-laguntzak jasotzeko.

- **GIZARTEARI DESGAIETUEN ENPLEGUAREN GAINEKO DATUAK JAKINARAZTEA:** sexua, adina, enplegu-mota, lurraldea, udalerrria eta halako aldagaiak behar bezala xehatuta.

- **ORDEZKO NEURRIEI BURUZKO ARAU-ESPARRUA AZTERTZEA.** Besteak beste, enpresek erreserba-kuota ez betetzea justifikatzeko eredu eta eskakizunak hobetzea, ordezeko neurrietara orain arte bezain erraz ez jotzeko.

- **ENPLEGU-ZENTRO BEREZIE-TAN DAUDEN DESGAITUAK LANBIDEKO ENPLEGUA HOBE-TZEKO “ENPLEGU-ESKATZAI-LEEN” ZERRENDAN SARTZEA.**

Hala, profil gehiago egongo dira erreserba-kuota betetzeko, eta lan-gileak txandatzeko eta sustatzeko.

- **LAGUNTZA-ZERBITZU BAT ABIARAZTEA, LAN-ORIENTABIDEAN ETA -IBILBIDEAN, ETA LAN-MERKATUKO BITARTEKOTZAN ESPEZIALIZATUKO DENA, LANBIDEREN ORIENTABIDE-ZERBITZU OROKORRA OSATZEKO.** Zerbitzu horretan, erakunde espezializatuak parte hartuko dute, zer desgaituen kolektibo dauden eta desgaituek zer ezaugarri dituzten. ELKARTEANen antzeko erakundeen orientabide- eta azterketa-lantaldeek ere parte hartuko dute.

Horretaz gainera, betiere bermatu beharko da desgaitu orok jo dezakeela orientabide profesionaleko zerbitzuetara. Laneratzekeo baliabideei buruzko informazioak ulergarria eta egokia izan beharko du, eta baliabide horiek irisgarriak izan beharko dute. Zerbitzu horiek baliagarriak izango dira hizpide dugun kolektiboaren jarduerarik ezari aurre egiteko.

- **DESGAITUEN HEZIKETA ETA LANBIDE-PRESTAKUNTZA IR-MOKI BULTZATZEA:**

- o Hezkuntza-zentroetan irisgarritasun-arazorik ez dagoela bermatzea; batez ere, zentro pribatuetan.
- o Prestakuntza-mota zinez praktikoa abiaraztea: enpresetan

praktikak egitea. Laguntza-ildoak aztertzea, lanpostuak egokitu ahal izateko.

- o Gizabanakoen motibazioa, autoestimua eta ahalduntzea lantzea.
- o Lanpostuak egokitzeko gune bilakatzea Lanbide-heziketa (LH): ikertzeko, lanpostuen egokitzapenean berrikuntzak egiteko, teknologiak baliatze-ko eta abarretarako.

- **AGERIAN JARTZEA DESGAI-TUEK ENPLEGUARI EKAR-TZEN DIOTEN BALIO ERAN-TSIA:**

- o Desgaituak enplegu arrun-tean laneratzeari dagokionez, jardunbide egokiak agerian jartzea eta saritzea. Batez ere, aniztasuna agerian jar-tzen duten lanpostuetan.
- o Enpresei hobeto azaltzea zer balio erantsi ekartzen duten desgaituek enpresan: ekoiz-penean, lan-giroan, jarrere-tan, errendimenduan, ahale-ginean, lanaren balioan...
- o Enpresariei jakinaraztea des-gaituek talentu, gaitasun eta ahalmen handia dutela, eta estereotipo negatiboak ezabatzea. Agerian jartzea zenbat gauza egiteko gai diren desgaituak (ez kuali-fikazio baxuko lanpostuetan soilik).

- **ENPLEGU BABESTUAREN LAN-BALDINTZAK ZAINZEA ETA ENPLEGU ARRUNTERAKO BIDEAN EGINDAKO LORPE-NAK AGERIAN JARTZEA. Lor-penak honetan dautza:**

- o Pertsona horien lan-baldintzak duin bihurtzea, hitzarmen kolektiboak sektoreko hitzarmenekin berdintzeko.
 - o Lanpostu hobeak eskuratze-ko eta beste enplegu-mota batzuetara aldatzeko aukerak.
 - o Sindikatu-ordezkaritzaren bidez, zentro horietan lan egiten duten pertsonen eskubi-deak babestea.
 - o Langileei eta haien senideei zer lan-eskubide dagozkien jakinaraztea.
 - o Enplegu arruntean sartzen diren pertsonen buruzko datuak aditza ematea, arrakastaren adierazgarri dira eta.
 - o Langileen gogobetetasun-maila sistematikoki ebaluatzea.
- ENPLEGU PUBLIKOA:**
- o Lanpostu guztietan kuotak ezartzea; kuota ezberdinak ezartzea, taldeen eta kategorien arabera.
 - o Sarbide probak benetan egokitzea. Ikusi da gabezia handiagoak daudela desgaitasun psikikoei dagokienez. Merzimentuetan berdintasuna errespetatu beharra dago; halere, argi dago egokitzapen konprometituagoak egin behar direla berdintasuna bermatzeko.
 - o Desgaitasunarentzat ezarritako erreserba-kuotaren barruan, kuota jakin bat ezartzea emakume desgaituentzat.
 - o Aldundi batzuk aplikatzen ari diren “egokitasun ziurtagiria” delakoa kentzea, eta jardunbide diskriminatzaile hori bertan behera uzteko egin beharreko ekintzak egitea.
 - o Enplegu publikoko poltsetan erreserbak ezartzea.
 - o Lanpostuak egokituko direla bermatzea, eta beharrezko doikuntza oro egitea, lanpostu horietan lan egiten duten desgaituek eginkizun guztiak egiteko gai izan daitezten.
- PRESTAZIOEN BATERAGARRITASUNA ETA MALGUTASUNA**
- Araudia aldatzea edo araudia aldatzera bultzatzea (eskumeneren banaketaren arabera), bateragarria izan dadin lanean jardutea eta hainbat motatako pentsioak kobratzea.
- TEKNOLOGIA-ARLOAN BERRIKUNTZAK SUSTATzea, LANPOSTUAK DESGAIUENTZAKO EGOKITZEKO.**
- I+G+B sustatzea, lanpostuak egokitzeko, langileek enplegurako, segurtasunerako eta osasunerako sarbidea izan dezaten, eta eritasunei aurre hartzeko eta eritasunak ez larriagotzeko.
- OSASUNA:**
- **EZ EGITEA INOLAKO MURRIKZETARIK OSASUN-PRESTAZIOETAN, EZ ETA OSASUN-SISTEMAREN BALDINTZETAN ERE.**
 - **IRISGARRITASUN UNIBERTSALA ETA GUZTIENTZAKO DISEINUA BERMATzea OSA-**

SUN-SISTEMAREN OSASUN-ZENTRO GUZTIETAN, BAI ETA OSPITALE, ARRETA ESPEZIALIZATUKO ZENTRO, TRESNA ETA BALIABIDE GUZTIETAN ERE.

Baliabide, instalazio, osasun-zentro eta ospitale guztietan, irisgarritasun-baldintzak zinez hobetzearen alde egin behar da.

Kontuan hartu behar da desgaituak, paziente ez ezik, beste paziente batzuen laguntzaile ere izaten direla.

- **IRTENBIDEAK BILATZEA, EGITURA-ALDAKETAK EGINEZ OSASUN-SISTEMA DESGAITUEN PREMIETARA EGOKITZEKO.**

Osasun-sistemaren egituraketan eta diseinuan eragina duten irtenbideak bilatu behar ditugu. Hauek dira helburuak:

- o Desgaituek, egoera kronikoak izateaz gain, hainbat arazo izaten dituzte aldi berean (beste pertsona eta errealitate batzuetara zabaltzen ari da hori), eta osasun-sistemak horiei erantzun eta heldu behar die.
- o Osasun-sistemak diseinua moldatu behar du, eta pertsonen premietara egokitu.

Halaber, irtenbideak bilatu behar ditu, eta erantzunak egokitu, arazo sistemikoek (laguntza zatikatua, arreta-denborak, piramide-sistema, administrazio eta egikaritze zatikatua, esku-hartzearen osotasunik eza...) desgaituei zailtasun gehiago sor ez diezazkio-ten, edo, arazo horien ondorioz,

desgaituek arreta ezegoki gehiagorik izan ez dezaten.

- **PREBENTZIOAREN ALDE EGITEA, DESGAITASUNAK EDO MENDE TASUN-EGOEREK OKERRERA EZ EGITEKO.**

Prebentzioaz ari garela, familiei ematen zaien laguntza ere kontuan hartu behar da.

Berez, prebentzioak ez du desgaitasunarekin soilik lotuta egon behar: osasun-politikaren oinarri izan behar du.

Prebentzioari dagokionez, elkar-ter mugimenduak zer ekarri handia eta zer irakatsi asko du: haren parte-hartzea baliagarria da irtenbideak proposatzeko eta desgaitasun-egoerak saihesteko, bai eta mendetasun-egoerak sortzea edo larriagotzea saihesteko ere.

- **MEKANISMOAK ERATZEA, OSASUN-SISTEMAKO PROFESIONALEI PRESTAKUNTZA HOBEA EMATEKO DESGAITASUNAREN ARLOAN ETA DESGAITASUNAREKIN TREBATZEKO.** Mekanismo horietan, desgaituen ordezkari diren erakundeek parte hartu behar dute.
- **DESGAITUEN PREMIETARA EGOKITU BEHAR DA SISTEMA:** besteak beste arlo hauek egokitu behar dira:

- Diagnostiko eta tratamenduetarako tresneria.
- Diagnostikoa egiten dutenek eta gizarte- eta komunitate-esparruan lan egiten dutenek elkarlanean jardun behar dute: diseinu soziosanitarioa.
- Errehabilitazio soziosanita-

ria, bizi-kalitatea hobetzeko eta okerragotze fisikoa ahalik eta gehien geldiarazteko.

- Gizabanakoari eta haren familiari laguntza psikologikoa eta orientabidea emateko baliabideak, baldintza berrietara ohitzeko: baliabide horiek osasun-sistematik kanpo daude; hein handi batean, elkarte-mugimenduetan.
- Ibilbideak: oztopoak daude leku batetik beste batera joateko.
- Kronikotasunaren premietara egokitzea.
- Irisgarritasunarekin eta erabilgarritasunarekin lotutako gabeziak eta zailtasunak.
- Gizabanakoen duintasuna errespetatzea: gizabanakoak eskubideen subjektutzat ez hautematea eta hartzea...
- Sendagai generikoek sor ditzaketen desegokitasunak.
- MURRIZKETARIK EZ EGITEA ORTOPROTESIEN KATALOGOAREN ETA LAGUNTZA TEKNIKOEN EDUKIETAN ETA HORIEK JASOTZEKO BALDINTZETAN, eta eduki eta baldintza horiek hobeto egokitzea arlo horretan desgaitasunak dituzten pertsonen premietara.

Ezin muga ditzakegu baliabideak; hots, beste pertsonen —aktibo daudenen zein beste— antzeko duintasuna eta bizi-kalitatea izateko ezinbestekoak diren baliabideak. Giza duintasunaren oinarri-oinarrizko elementuak dira.

Beharrezkoa da laguntza teknikoetan inbertsioak egiten jarraitzea, berrikuntza eta sormena abiapuntu hartuta.

IRISGARRITASUN UNIBERTSALA

Irisgarritasun unibertsala da baldintza bat, inguruneek, prozesuek, ondasunek, produktuek, zerbitzuek, objektuek, tresnek, erremintek eta gailuek bete behar dutena, pertsona guztiek segurtasun- eta erosotasun-baldintzetan eta ahalik eta modurik autonomoenean eta naturalenean uler eta erabil ditzaten. Guztiontzako diseinua deritzon estrategia abiaraztea eskatzen du, egin beharreko zentzuzko doikuntzak aparte utzi gabe (LIONDAU - ABBEIULen 2.c) artikulua).

Ingurune irisgarria da pertsona guztiak kontuan hartuta diseinatu dena eta aniztasunari erantzuten diona. Guztiontzako diseinuak ezinbesteko eskakizun bat izan behar du, eta kontuan hartu beharko da eraikinak, garraio-sistemak eta azpiegiturak diseinatzerakoan. Euskadin, duela 10 urte sartu zen indarrean Irisgarritasuna sustatzeko Legea. Lege horren 1. artikuluan, legearen xedea jasotzen da: “hiri-ingurunearen, gune publikoen, eraikinen, garraiobideen eta komunikabideen irisgarritasuna bermatzea, pertsona guztiek eta, batez ere, mugikortasun murriztua, komunikatzeko zailtasunak edo muga psikiko zein sentzorialak, aldi baterakoak zein betikoak, dituztenek era autonomoan erabil eta goza ditzaten”.

Irisgarritasunaren eta guztiontzako diseinuaren kontzeptuak ondo zehaztuta daude Euskadiko lege-esparruan; hala ere, zehaztasun

horiek ez dira gizartearen eta politikaren errealtatera hedatu. Horren adibide, azpiegitura berri batzuek ez dituzte lege-eskakizunak betetzen, edo irisgarritzat hartzen dira, baina berez ez dira irisgarriak. Horregatik, Euskadik irisgarritasun unibertsala lortzeko bidean aurrera egin dezan, ezinbestekoa da, funtsean, borondate politikoa eta soziala izatea, aurrekontuak izatea, administrazioak kontrola egitea eta zigorrak ezar-tzeko tresna eraginkorrak izatea.

Hori lortze aldera, autonomia eta foru mailako eta tokian tokiko exekuzio- eta legegintza-eskumenen arloan, hau proposatzen dugu:

- Arau-proposamen bat egitea, irisgarritasun unibertsalaren eta guztientzako diseinuaren printzipioa nahitaezko baldintza bat izan dadin, inguruneek, produktuek eta zerbitzuek bete beharrekoa, pertsona guztiak uler, erabil eta balia ditzaten. Proposamen horretan, kontuan hartu behar dira, batetik, Desgaitasunen bat duten Pertsonen Eskubideei buruzko Hitzarmena, eta bestetik, Aukera-berdintasunari, diskriminaziorik ezari eta irisgarritasun unibertsalari buruzko Legearen estatu mailako garapena arlo hauetan:
 - o Telekomunikabideak eta informazioaren gizartea.
 - o Eremu publiko urbanizatuak eta eraikinak
 - o Garraiobideak
 - o Jendearen esku jartzen diren ondasunak eta zerbitzuak
- Irisgarritasun-irizpideak gai-nerako politiketan eta sailetan betearaztea; hala nola, hezkuntza-, aisialdi-, kultura-, kirola- eta lan-sailetan. Gainerako sailtako araudiak aztertu behar dira, sail guztiak bete beharreko eskakizun bat izan dadin irisgarritasuna.
- Konpromisoa hartzea irisgarritasunari buruzko osoko kontu-ikuskaritza egiteko udal guztietan, legegintzaldiaren lehenengo urtean, eta egokitzapen-lanak eta -jarduerak egiteko, hurrengo bi urteetan. Poliki-poliki, hori bera egitea gainerako udal eraikin publikoekin. Edonola ere, gehienezko epeei dagokienez, abenduaren 2ko 51/2003 Legean ezarritakoa hartuko da erreferentziatzat.
- Udalbatzei eskatzea Lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 177 j) artikuluan xedatutakoa betetzeko eta dagokion ordenantza egiteko.
- Irizpideak ezartzea eraikuntza-kodea interpretatzeko. Irizpide horien helburua da jabekideen komunitateetan eskailera-kaxa 0,80 metrora mugatzea eta, hala, 60ko urteetan eraikitako komunitateetan irisgarritasuna bultzatzea (garai hartan eraikitako komunitate gehienetan, eskailera-kaxa 2,40 metrokoa da).
- Irisgarritasun-lanak egitea hiri-inguruneetan, eta irisgarritasun unibertsalaren eta guztiontzako diseinuaren irizpideak aplikatzea.
- Ez jartzea eskailera mekanikorik irisgarritasuna hobetzeko sistema gisa.

- Desgaituen aparkatzeko txartelarekin aparkatzeari dagokionez, debekuak interpretatzeko irizpideak bateratzea.
- TAOren ordenantzen irizpideak bateratzea, mugikortasun murriztua dutenentzako aparkalekuak arautzeari begira.
- Ikastetxe publikoak egokitzea.
- Garraio publikoaren arloan, dagokion araubidea garatzea, benetako irisgarritasun unibertsala bermatzeko.
- Administrazio publikoko eragile guztiak inplikaraztea, zinez aplikatzen diren LIONDAU - ABBEIUL eta haren garapen-araudia irisgarritasun unibertsalerako oinarritzko baldintzei dagokienez:
- Irisgarritasun-batzordea sustatzea, administrazioen arteko koordinazio-lanaren buru eta arduradun izan dadin, eta irizpideak eta jarraibideak batera dituzten, irisgarritasun unibertsalaren zeharkakotasuna abiapuntu hartuta.
- Eraikuntzaren arloan, mekanismoak eratzea, jarraibide, parametro eta irizpide argiak ezartzeko. Udal-teknikariak horiek guztiak aplikatu beharko dituzte baimenak emateko, lanen egikaritzea ebaluatzeko eta abarretarako, eta saihestu egin beharko dituzte ezjakintasunaren eta inkongruentzien ondorioz gaur egun gertatzen diren egoerak. Arlo horretan, beharrezkoak diren arau-aldaketak egitea bultzatu behar da.
- Jabego horizontalaren legea aldatzea, gastu komunak ordaintzeko ezarritako muga (hamabi hileko kuota arrunt) handitzeko (26/2011 Legearen 15. artikuluan jaso zen muga hori) eta gailu mekanikoak eta elektronikoak jartzeko.
- Udal guztiak bultzatzea irisgarritasun-planak izatera eta aplikatzera.
- Igogailuei, eraikinen sarrerei eta halakoei dagokienez, egiten diren obra guztietan “zero kota” beti eskatuko dela bermatzea (eta ez bestelako irtenbide partzialak edo ordezkoko laguntza teknikoak).
- Unibertsitatean edo bestelako prestakuntza- eta heziketa-zentroetan diseinua, hirigintza, arkitektura, ingeniariaritzaren eta antzeko diziplinaren bat ikasten dutenek ezinbestean izatea irisgarritasun unibertsala enborreko irakaskuntzat (irisgarritasun unibertsalaren arloan ematen den prestakuntza ezin da mugatu sentzibilizatzeko hitzaldi eta uneen uneko jardunaldietara).
- Udal jakin batzuk egiten ari diren jardunbide egokiak agerian jartzeko lana bultzatzea.
- Administrazioei “leihatila bakar” izateko eginkizuna ematea; hau da, irisgarritasun unibertsalaren eta guztientzako diseinuen arloko laguntzei, irtenbideei eta jardunbide egokiei buruzko informazioa eta orientabidea emateko “leihatila bakar” izateko eginkizuna ematea.
- Udalerrietan, salaketak egiteko guneak jartzea, herritarrek arlo horretan dituzten kezak eta proposamenak jasotzeko.

- Mekanismoak eta prozedurak antolatzea (irisgarritasunaren azken ziurtagiria, irisgarritasunaren baremoa/galdeketa eta abar), administrazioak ebalua eta ziurta dezan obrak behar bezala egiten eta amaitzen direla eta galda daitezkeen irisgarritasun-baldintza guztiak betetzen direla. Halaber, baldintza horiek ez betetzeak zer ondorio izango dituen ezartzea; esate baterako, fidantza ez itzultzea.
- Merkataritza-lokalen irisgarritasuna arautzen duen dekretua azterraraztea, dekretu hori nola aplikatu den ebaluatu aurretik, Eraikuntzako kode tekniko berrian jasotako aldaketak kontuan hartuta.
- Garraio-arloan, aplikatzekoa den araudia betetzen dela bermatzea.

HEZKUNTZA

- Beharrezko baldintza, laguntza, gailu eta egokitzapen oro bermatzea, desgaitasunen bat duten pertsona guztiek beren hezkuntza-ibilbidean zehar hezkuntza inklusiboa izan dezaten eta aukera-berdintasuna izan dezaten irakaskuntzaren maila guztietan eta ikastetxe guztietan (publiko, itunpeko zein pribatuetan).

Edonola ere, ezinbestekoa da desgaituek beharrezko zaien laguntza oro jasotzea, hezkuntza-maila edozein dela ere, egiten dituzten irakasgaietan eta egun osoan zehar (bai eta aisialdian eta atsedendian ere, aukera-berdintasunez). Halaber, ikastetxeek garraiobide egokituak eta

irisgarria izan behar dute, eta desgaitasunak dituzten ikasleek aukera izan behar dute ikastetxean ikasle guztientzat antolatzen diren irteera kulturaletan eta ludikoetan parte hartzeko eta irteera horietaz gozatzeko, aukera-berdintasunez.

- Hezkuntza- eta lan-arloa hobeto koordinatzea, desgaituen gaitasunak hezkuntza-arloan hobeto garatzeko, hots, lan-merkatuan sartzeari begira garatzeko.
- Hartu beharreko neurri guztiak hartzea, desgaituak ez dezaten paira diskriminaziorik, gaitzespenik eta bullyingik.

AISIALDIA, KULTURA ETA KIROLA

- Esparru juridiko bat ezartzea, desgaitasunen bat dutenek kulturaren bidez bizitza politikoan, ekonomikoan, kulturean eta sozialean bete-betean parte hartzeko duten eskubidea bermatzeko eta garatzeko.
- EAEko azpiegiturak eta eremu turistikoak erabat irisgarriak direla bermatzea. Horretarako, ezinbestekoa da araudi egokia izatea, bai eta araudia garatzeko aurrekontu-hornidura egokia izatea ere.

GENEROA

Edozein motatako desgaitasun izaiteak nabarmen mugatzen du gizarte- eta ekonomia-eskubideen erabilera. Desgaitasunak modu berean eragiten die emakumeei eta gizonei; dena den, gizarteak hein handiago batean zigortzen ditu emakume desgaituak gizon desgaituak baino. Are gehiago, emakume desgaituek

bi diskriminazio-mota pairatzen dituzte: emakume izateagatik eta desgaitu izateagatik. Eta horrek eragotzi egiten du aukera berberak izatea, gizartean parte hartzea eta norbanakoaren askatasuna erabiltzea. Datuen arabera, kolektibo horrek, errealitatean, gabeziak ditu hezkuntza-arloan, mugak ditu gizarte-zerbitzuak erabiltzeko, zailtasunak ditu lana bilatzeko, arrisku handiagoa du indarkeria-egoerak pairatzeko, etab.

Emakume desgaituek hainbat zailtasuni aurre egin behar diete. Zailtasun horiek, ordea, ez dira desgaitasun-motaren edo -mailaren ondorio, baizik eta jaiotzetik gutako bakoitzak zer egin dezakeen eta zer ez ezartzen duten estereotipoen eta gizarte-rolen ondorio. Emakume desgaitu izateak oso aukera gutxi ematen ditu zer izan eta zer egin erabakitzeko.

Emakume desgaituok lan handia egin behar dugu gure kolektiboari buruzko aurreiritziak ezabatzeko, eta gizon desgaituek eta gainerako gizon-emakumeek, hitz batez, gizarteak aintzat har gaitzan. Ama, bikotekide, profesional eta gizarte- eta kultura-eragile aktibo gisa ditugun bitzitza-proiektuak zertzeak eta, oro har, gizartearen garapenean parte hartzeak utopia izateari utzi eta errealitate bilakatu behar du poliki-poliki.

Gure helburua da emakume desgaituen egoera agenda politikoen, emakumeen mugimenduen eta herri-iritzia lehentasunezko gai izatea, bai eta genero-ikuspegia bigarren mailan ez uztea ere. Horretaz gainera, desgaitasuna nork duen,

gizon batek edo emakume batek, alde handiak daude, eta ezinbestekoa da desgaitasunari buruzko diskurtsoak alde horiek ez lausotzea.

Horren ildotik, hauexek dira gure **eskakizunak**:

- o Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Hitzarmeneko 6. artikulua betetzea. Artikulu horretan esaten denez, “Estatu kideek onartzen dute desgaitasunen bat duten emakumeek eta neskek hainbat motatako bazterkeria pairatzen dutela, eta, horri aurre egiteko, neurriak hartuko dituzte giza eskubideak eta oinarrizko eskubideak bete-betean eta aukera-berdintasunez erabil ditzaten”. “Estatu kideek neurri egokiak hartu beharko dituzte, emakumeen erabateko garapena, aurrerabidea eta sustapena bermatzeko, bai eta hitzarmen honetan jasotako giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak erabil eta balia ditzakeela bermatzeko ere”.
- o Abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoan, genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoan, xedatutakoa betetzea, emakume desgaituei dagokienez.
- o Otsailaren 18ko 4/2005 Legean, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoan, xedatutakoa betetzea eta emakume desgaituen ikuspegia kontuan hartzea.
- o Generoaren eta desgaitasunaren ikuspegiak kontuan hartzea edozein arlotako politikak, egitasmoak eta zerbitzuak abian jartzean (hezkuntza, enplegua, irisgarritasuna eta hirigintza-

antolamendua, aisialdia, kultura eta kirola, gizarte-zerbitzuak, osasuna...).

- o Emakume desgaituei eztabaida-leku eta mahai-inguruetan parte harraraztea; zehazki, gizarterabilerarako hiri-guneak diseinatzeko eta planifikatzeko herri-partaidetzako eztabaida-leku eta mahai-inguruetan.
- o Desgaitasunaren ikuspegia kontuan hartzea emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko azterlan, ikerketa, diagnostiko eta egitasmo guztietan.
- o Estatistiketan eta datu-baseetan, desgaitasunaren aldagaia sexuaren arabera bereiztea.
- o Masterretan, prestakuntza-moduluetan eta unibertsitatean irakasten diren genero-ikuspegiari buruzko moduluetan, emakume desgaituen ikuspegia kontuan hartzea.
- o Komunitatearen baliabideak eta zerbitzuak egokitzea, emakume desgaituek erabil ditzaten eta haietan parte har dezaten, gainerako emakumeek dituzten baldintza eta aukera bertsuetan.

ERANSKINA

ERREFERENTZIA-ITURRIAK

A) ARAU-ERREFERENTZIA NAGUSIAK

- Desgaitasunen bat duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Hitzarmena.
- Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuna (2010/C 83/02)
- 26/2011 Legea, abuztuaren 1ekoa, araudia desgaitasunen bat duten pertsonen eskubideei buruzko nazioarteko hitzarmenaren arabera egokitzen duena.
- 51/2003 Legea, abenduaren 2koa, desgaitasunen bat duten pertsonen aukera-berdintasunari, diskriminazio ezari eta irisgarritasun unibertsalari buruzkoa, eta haren garapen-araudia.
- 1276/2011 Errege Dekretua, irailaren 16koa, araudia desgaitasunen bat duten pertsonen eskubideei buruzko nazioarteko hitzarmenaren arabera egokitzen duena.
- 39/2006 Legea, abenduaren 14koa, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa, eta haren garapen-araudia Espainian, EAEn eta foru-aldundietan.
- 13/1982 Legea, apirilaren 7koa, desgaituak gizarteratzeari buruzkoa.

- 12/2008 Legea, EAEko gizarte-zerbitzuei buruzkoa.
- 39/2006 Legea, abenduaren 14koa, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa, eta haren garapen-araudia (Espainian, EAEn eta foru-aldundietan).

B) ESTRATEGIARI ETA PLAN-GINTZARI BURUZKO ERREFERENTZIA NAGUSIAK

- Desgaitasunari buruzko Europako Estrategia 2010-2020: mugarik gabeko Europa baterako konpromiso berria.
- Desgaitasunari buruzko Espainiako Estrategia 2012-2020.
- Desgaitasunari buruzko Espainiako Estrategia 2012-2020: ekintza-plana. Lehenengo fasea (2012-2015).
- Euskadin kronikotasunaren erronkari aurre egiteko estrategia.
- Bizkaian desgaitasuna duten pertsonen parte-hartzerako eta bizi-kalitaterako plana.

C) BESTE ERREFERENTZIA BATAK

- Estatuko CERMIren dokumentua, abenduaren 14ko 39/2006 Legearen, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoaren, ebalua-

- zio- eta azterketa-prozesuari zer irizten dion jasotzen duena.
- Derechos y Servicios Sociales. Por un Sistema de Servicios Sociales universal, garantista y de calidad: un derecho básico para la igualdad y el desarrollo humano. CERMIren bilduma, 49. zk.
 - Deinstitutionalisation and community living (Desinstitucionalización y Vida Autónoma en la Comunidad; Desinstituzionalizazioa eta komunitate-bizitza). Kenteko Unibertsitatea (London's School of Economy-ren laguntza jaso du).
 - Pertsona ezgaituen lanerako aukerak EAEn. ARARTEKOA.
 - Osasunaren Mundu Erakundearen —OME— Funtzionamenduaren, desgaitasunaren eta osasunaren nazioarteko sailkapena (FDS 2001).
 - Europar Gobernantzari buruzko liburu zuria. Europako Erkidegoen Batzordea. Brusela, 2001.7.25 COM (2001) 428. orrialdetik amaierara arte.
 - Arreta soziosanitarioa: esparru kontzeptuala eta nazioarteko eta autonomietako aurrerapausoak. Hurbilketa. Arartekoa.
 - EAEko garraio-sistema publikoak duen irisgarritasunari buruzko diagnostikoa. Arartekoa.
 - Gizarte-zerbitzuen eskaerari buruzko estatistikak. Gizarte-premiak. 2006. Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila. Eusko Jaurlaritza.
 - EDAD 2008 inkesta. Estatistika Institutu Nazionala.
 - Tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ezerako lege osoaren aurreproiektua.
 - FEKOORen estrategiak: Desgaitasun fisikoren bat duten emakumeen eta gizonen eskubi-deak.
 - Txostena, ELKARTEANek eginiko lan-mahai batzuen emaitzak jasotzen dituena. Lan-mahai horietan, hizpide izan genuen Desgaitasunak dituzten Pertsonen Eskubideei buruzko Hitzarmena, eta EAEn nola aplikatzen den aztertu genuen; batez ere, gai hauetako dagokienez: emakumea, enplegua, osasuna eta irisgarritasuna.

